



MONTES DE HIERRO – BURDINMENDI BIDE BERDEA, ENKARTERRIETAN (BIZKAIA)

Bide Berdea

Montes de Hierro - Burdinmendi

Traslaviña - Gallarta tartea

Bide Berdearen landa-bihotza

Burdinmendi – Montes de Hierro Bide Berdearen lehen tartea **Traslaviñan** (Artzentales) hasi eta **Gallarta** auzoan (Abanto-Zierbena) bukatzen da. Ibilbidean zehar ugariak dira antzinako meatzari zein eskualdea zeharkatzen zuen trenbidearekin erlazionatutako **mugarriak**, baita aztarna historikoak ere (burdinolak, zama-lekuak, tunelak, antzinako tren geltokiak, etab.). Bestalde, **beste ibilbide ezagun batzuk** tarte honekin bat egiten dute, hala nola, Burdinolen Ibilbideak edo GR 281ak. Gainera Bide Berdetik oso gertu Enkarterrietako museoa eta Loizaga Dorrean kotxe zahar eta klasikoaren museoa daude.

Bide Berdearen tarte honek **31 kilometro** ditu. Paisaiari dagokionez, **bi sektoretan** banatzen da: lehen 15 kilometroak, Traslaviñatik (Artzentales) Atxuriagako (Galdames) atsedeneraino doazenak, eta hurrengo 16 kilometroak, Atxuriagatik Gallartara (Abanto – Zierbena) doazenak. Atxuriagako antzinako tren geltokian naturaren haur parkea aurkituko duzu, non beronen edukiak ezagutzeaz gain bizikletak alokatzeko aukera duzun, ibilbidearen 0 kilometroan bezala, Traslaviñan.

Ondoren bi sektoreetako paisaiaren ezaugarriak laburbiltzen dizkizugu.

Traslaviña - Atxuriaga: galeriako paisaia

Hasieran, bidea basoek mugatzen dute etengabeki, edo erliebeko paretan artean ahokatuta dago. Honek begirada urruneko paisaietan galtzea galarazten du, eta gogoia bidean biltzera bultzatzen gaitu. Paisaia honek babes eta isolamendu sentrazioak sortzen ditu, kanpoko soinuak leundu eta paretetatik erortzen den urarenak eta naturaren usainak areagotzen dituelako.



Bide Berdea Sopuertatik gertu

Orokorrean, soinu-paisaian ondokoak nagusitzen dira: paretetatik irristatzen den ura, ibaia, hegaztiak eta motordun ibilgailuak. Gune batzuetan, ibaia asko nabarmentzen da, ubidea begi-bistan geratzen delako, edo landarediari zein soinuari esker sumatzen delako. Ikuspegi panoramikoak urriak dira, eta ematen direnean mendiek paisaiaren atze-oihala osatzen dute. Hiri-guneetara hurbildu ahala, baserri-paisaia atlantikoan barneratuko gara, baserri, belardi, baratze eta soroak dituen.

Atxuriaga - Gallarta: paisaia zabaldu, eta kontrasteak nagusi



Atxuriagako (Galdames) naturaren haur parkea

Lehen 7 kilometroetan aurreko sektoreko landa-paisaia mota bera mantenduko da.



Ikuspegia, Kotorrio auzotik (Abanto – Zierbena)

Sektore honetan zein aurrekoan aztarna historikoak eta hobekien kontserbatuta dauden elementuetara eramango gaituzten bideak aurkituko ditugu.

Bestalde, sektore honetan kontraste nabarmenak sortzen dira ibilbideak zeharkatzen dituen landa-eremuen eta paisaia zabaldu eta gure begirada inguruko lurraldera hedatzean ikusten diren industrialdeen artean.

Paisaia hauek hobeto ezagutzeko bi jarduera

Ikusi makusi...

Paisaia osatzen duten elementuekin trebatzeko eta berau arreta handiagoz behatzeko, Bide Berdea zeharkatzen dugun bitartean **ikusi makusi jolasean aritu** gaitzake. Hori bai, jolaserako **paisaiaren elementuak** erabiliko ditugu soilik, hala nola:

- ➔ **Erliebearen** elementuak, eta **urari** lotutakoak (mendiak, gailurrak, haranak, ibaiak, urtegiak, lurmuturrak, itsaslabarrak)
- ➔ **Landaredia** (zuhaitzak, heskaiak)
- ➔ **Lehen sektorearekin** erlazioaturiko elementuak (soroak, baserriak, ukuiluak, abereak)
- ➔ **Biztanleguneak**
- ➔ **Azpiegiturak eta industrialdeak** (errepideak, harrobiak, antenak, argindar sareak)
- ➔ Elementu **historikoak** (aztarna arkeologikoak, mugarriak, errota, burdinolak)



Adibidez, Bide Berdea Los Castaños-etik gertu (Galdames) igarotzean ikusten den paisaia honetan ondoko elementuak aukera genitzake ikusi makusian aritzeko: hodeiak, tximinia, kea, baserria, belardia.

Paisaiaren ebaluazioa

Jarduera honen bidez **paisaia ebaluatzen dugun moduaz jabetuko** gara, ia oharkabean egin ohi dugun zerbait. Paisaia hautematean, oro har, pisu gehien duen zentzumena **ikusmena** da, **entzumena** eta **usaimena** ere oso garrantzitsuak diren arren. Hortaz, paisaia hautemateko zure zentzumen guztiak erabiltzera bultzatzen zaitugu.

Ibilbidean egindako geldialdiak hurrengo orrialdeko fitxa betetzeko erabil ditzakegu, baita atseginago iruditu zaizkigun paisaien inguruan eta horren zergatiaz gogoeta egiteko ere. Lehenik begien bistan duzun paisaiaren **balorazio orokorra** egin dezazun proposatzen dizugu, zure sentsazio orokorra biltzeko.



La Helechosa auzoa, Traslaviña (Artzentales)

Amaitutakoan, hautemate orokor horren atzean dauden **arrazoietan** sakontzera gonbidatzen zaitugu, bi ariketa laburren bidez. Fitxaren lehen atalak paisaiaren hainbat **osagai** aurkeztuko dizkigu, gure hautematearen gain pisu nabarmena

dutenak. Paisaiaren osagai bakoitzarekin erlazioaturako hainbat **adjektibo** dituzu aukeran, zure ustez hobekien deskribatzen duena aukera dezazun. Ondoren, paisaia deskribatzeko aukeratutako adjektiboan eta paisaiari buruzko balorazio orokorraren arteko harremanari buruz gogoeta egin ezazu: bere oreka eta transmititutako segurtasuna ote dira paisaia zuretzat atsegin bihurtzen dutenak?, eskala txikiak eta kolore motelek zuretzat erakargarritasun gutxi izatea eragiten al dute?

Fitxaren bigarren atalean behatzen ari zaren paisaiako **elementu** zehatzetan arreta jar dezazula proposatzen zaizu, eta horrekin batera paisaiaren **kalitatea areagotzen** duten bost elementu, eta **kalitatea gutxitzen** duten beste bost gehienez aukera ditzazula. Ariketa honek ere gogoeta interesgarriak piztuko dizkizu: taldean bazaude, pertsona guztiek bat egin al duzue aukeratutako elementu positibo eta negatiboetan?, elementu jakin bat desagertuko balitz, paisaiaren zure hautemate orokorra aldatuko ote litzateke?, zer aldatu beharko litzateke zuri atseginagoa iruditzen?

OROKORREAN, BEGI-BISTAN DUZUN PAISAIA NOLAKOA DELA ESANGO ZENUKE?

Oso atsegina Atsegina Nahiko atsegina Ez hain atsegina Batere atsegina ez

EZAUGARRIA	HOBEKIEN DESKRIBATZEN DUEN ADJEKTIBOA (AUKERATU EGOKIENA)				
ESKALA	Goxoa	Txikia	Zabala	Panoramikoa	
ANIZTASUNA	Uniformea	Sinplea	Dibertsoa	Konplexua	
EHUNDURA	Leuna	Pikorduna	Pikor lodikoa	Pikor oso lodikoa	
KOLOREA	Kolorebakarra	Motela	Koloretsua	Bizi-bizia	
OREKA ETA PROPORZIOA	Harmoniatsua	Orekatua	Bat ez datorrena	Kaotikoa	
MUGIMENDUA	Barea	Lasaia	Arina	Gorabeheratsua	
SEGURTASUNA	Erosoa	Segurua	Beldurgarria	Arriskutsua	
LASAITASUNA ETA BAKARDADEA	Urrutikoa	Lasaia	Apur bat zaratsua	Zalapartatsua	

PAISAIARI KALITATEA GEHITZEN DIOTEN ELEMENTUAK, ETA KENTZEN DIOTEN AK

ZER ELEMENTUK AREAGOTZEN DUTE PAISAIAREN KALITATEA, ERAKARGARRIAGOA BIHURTUZ?

.....

.....

.....

.....

.....

ZER ELEMENTUK KENTZEN DIOTE KALITATEA PAISAIARI, DESATSEGINAGOA BIHURTUZ?

.....

.....

.....

.....

.....

Bide Berdeko paisaiak

Montes de Hierro – Burdinmendi Bide

Berdeak Enkarterrietako landa-paisaia eta hiri-ertzeko paisaien zati handia zeharkatzen du, garai bateko **meatzetako trenbidearen** arrastoa jarraituz, Enkarterrietako meategiak eta Nerbioi itsasadarreko zama-lekuak lotzen zituen. Trenbide honek burdina Traslaviñatik (Artzentales) Castro Urdialeseraino garraiatzea ahalbidetzen zuen.

Bide Berde honek **42 kilometroko** luzera du, Euskal Herriko bide berde luzeena delarik. Ibilbidea **hiru tartetan** bana daiteke: lehena **Traslaviñatik Gallartara** doa (31 km), bigarrena **Gallartatik Pobeñara** (8 km), eta hirugarrena **Itsaslurreko bide berdean zehar Pobeñatik Kobaroneraino** (3 km) doa.

Montes de Hierro – Burdinmendi Bide Berdeak eskainitako paisaiez goza ahal izan dezazun, **ENKARTERRIALDE Landa Garapen Elkartean** jarraian modu laburrean azalduko dizkizugun **lau liburuxka** osatu ditu.



Bide Berdeko paisaiak

Montes de Hierro – Burdinmendi Bide Berdeko paisaia-balioen aurkezpen orokorra. Hemen beronen paisaiei buruzko informazio orokorra aurkituko duzu.



Traslaviña - Gallarta

Tarte honek igarotako paisaiaren ezaugarri nagusiak azalduko dizkizugu, eta bere paisaia balioesteko bi ariketa proposatuko dizkizugu.



Gallarta - Pobeña

Tarte honek igarotako paisaiaren ezaugarri nagusiak azalduko dizkizugu, eta bere paisaien inguruan gehiago ikasteko bi jolas proposatuko dizkizugu.



Pobeña - Kobaron

Tarte honek igarotako paisaiaren ezaugarri nagusiak azalduko dizkizugu, eta bere paisaien inguruan gogoeta egiteko bi jarduera proposatuko dizkizugu.

Bide Berdea
Montes de
Hierro -
Burdinmendi

Montes de Hierro – Burdinmendi Bide Berdeari buruzko informazioa (fitxa teknikoak, mapa, profilak etab.):

www.viasverdes.com
www.montesdehierro.com
<http://www.burdinmendi.org>
www.enkarterrialde.org
<http://www.montesdehierro.com/>
<http://www.visitenkarteri.com/hacer/disfrutar-de-la-naturaleza/rutas/via-verde-burdinmendi.html>
http://www.magrama.gob.es/es/desarrollo-rural/temas/caminos-naturales/caminos-naturales/sector-noreste/galdames-sopuerta/galdames_sopuerta.aspx



Informazio gehigarria ENKARTERRIALDE Landa Garapen Elkartean

Argitalpen hau 9 euskal Landa Garapen Elkartek 2011 eta 2013 bitartean garatutako "EAEko baserri-paisaia atlantikoaren balioa agerian jartzeko jarduerak" proiektuaren baitan sortu da.

Eduki, irudi eta diseinuaren ©: PAISAIA, SM

L.G.: SS-1335-2013